

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Eskolara
itzulera /08**

ELKARRIZKETA

**Juan Karlos Bengoa,
alkatea /09**

LEINTZ GATZAGA

**Andramaixen
biharamona /10**



KURTZEBARRIREN 75. URTEURRENA

75 urte pasatu dira Kurtzebarri mendian gurutzea jarri zutenetik. Murrukixo MEk merezitako moduan ospatu gura izan du urteurrena.

OSOKO BILKURA: DIRU KONTUAK/4 • ELKARRIZKETA: JESUS ORTIZ DE URBINA/5

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 13
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 14
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaizta	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Domekan 12:30ean.

ARKARAZO
Domekan 11:30ean.

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Ez da mezarik egongo.

OHARRAK

KURTZEBARRIREN 75. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK
11:00etan meza izango dute Kurtzebarriko tontorrean, eta 14:00etan herri bazkaria egingo dute Elixabarrin.

AREANTZA AUZOKO JAIK
Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantzan. Gaur, egubakoitza, 20:45ean Martin Kabarrixa jasoko dute tantaian, eta 21:15ean auzo afaria egingo dute; ostean, argazki erakustaldia eta dantzaldia. Bihar, zapatua, 12:00etan meza nagusia eta ondoren, luntxa. 13:30ean Gimkana Txapelketa eta 18:00etatik aurrera jolasak izango dira nagusi. Domekan Kurtzebarriira joango dira.

IKASTAROK
Bionergetika, *chi-kung*, autoestimua eta harreman taldea, eta zinema eta mitologia lantegiak antolatu ditu Sadhana yoga elkarteak. Informazio zabalagoa 616 96 57 95 zenbakian.

EPEH ARGAZKI LEHIAKETA
EPEH Aretxabaletako plataformak Argazki Lehiaketa antolatu zuen oportetarako. Izaratoarekin argazkia ateratu baduzu, irailaren 30a baino lehen udaletxe zaharreko atarlean dagoen kaxan sartu. Argazkian norberaren datuak eta ateratako eguna eta lekua zehaztu behar dira. Erakusketa egingo dute.

LORAMENDIRENAGENDA


BEINKE-LORAMENDI DANTZA IKASTAROA
Loramendi EEK Beinke-Loramendi dantza ikastaroa antolatu du. Eskolak egubakoitzetan izango dira, 19:30ean, Kurtzebarri eskolako aretoan.

ARGAZKI ZAHARRAK
Debagunek kaleratzen duen egutegia egiteko argazki zaharrak behar dituzte, ahal bada jaietakoak. Loramendi EEra eraman.

ORAINDELA 11URTEARETXABALETAN

Pagaldaieneko taberna itxi eta etxea berritu zuten

Urte askoan aretxabaletarrendako janari gozoak prestatu eta gero, 1992ko abuztuan, Andramari jaien ostean, itxi egin zuten Pagaldaieneko taberna, eta etxea berritzen hasi ziren. Etxeak 120 urte inguru zituen orduan, eta Vasco Cerrajera enpresaren bulegoak jartzeko eraiki zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Umeterixia”

Ume mordua.
—*Bostak aldian sekulako umeterixia izaten da ikastola aurrian.*

Umeak, haurrak, orokorrean.
—*Umeterixia ziero lelotuta dago telebisiñuakin.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

‘Hirira doan bidea’

Natalia Ginzburg (1919-1991) idazle italiarraren lehenengo nobela duzue, 1943an argitaratua. Delia da bertako protagonista eta narratzailea. Gerra arteko garaian kokatzen da kontakizuna, baina ez da esaten non. Delia hiri inguruko herri txiki baten bizi den neska da, eta, inguruko gehienak bezala, hiriarekin liluratuta bizi da. Bere helburu nagusia gizona aurkitu eta hirira bizi izatera joatea da. Emakumearen begirada eskaintzen zaigu, askatasun moduko zerbait lortzeko sentimenduak alde batera utzi eta interesari begiratzen zitaion garaian. Nobela gogorra, zuzena, eta hausnarketarako sakona eragingo digu.



HIRIRA DOAN BIDEA

Natalia Ginzburg
Igela, 2001
147 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!


Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARETXAGAZETAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



ESKORIATZA
Ainhoa San Migel
Abuztuaren 5ean. Zorionak eta muxu bat, etxeo guztien partetik.



ARETXABALETA
Antziñe Mendia
Irailaren 7an. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Nekane Quintas
11an. Zorionak eta urte askotarako, Gureako lankideen partetik.


BABESLEA

FOTOSINTESIS
argazkilaritza

Errebelatu guztiak 24 orduetan
Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak


MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Kurtzebarriko kurtziek 75 urte bete ditte; domekan fango zara tontorrera?



EUKENE MARRODAN
Ikasle



J. J. LASAGA 'ARAMAIXO'
Langillie



AGURTZANE AZKARGORTA
Langillie eta ikasle



SONIA BEREZIBAR
Langillie



GOIO BESA
Langillie



KEPA ANTIXIA
Langillie

Urtero fan izen naz, baiñe aurtan, zoritxarrez, ezin izengo naz fan, beste konpromiso bat dauket-eta. Aurtan, gaiñera, egun espeziala izengo dala badakit, baiñe ze egingo dutzegu!

Ez, beste konpromiso bat dauket eta ezin neike fan. Oin arte ixte urtero fan izen naz oiñez tontorreraino. Hala eta be, goguen dauket 50. urteurrena bete zanien be huts egin neuela.

Ahalegiñak egingo ditut fateko, baiñe ez dakit. Aurtan, 75. urteurrena dala eta, gureko neuke, behintzat, fan. Bestela, egixe esan, ez naz askotan fan izen Kurtzebarriko egunera.

Ez, lana dauket. Pena da, baiñe ez naz Kurtzebarriko egongo. Gaiñera, ume txikiñe be badauket eta tontorreraino fatia gatxa izengo litzake. Gaztiegue nitzen sarrittan faten nitzen.

Ez, mahatsan egune da Errioxan eta hara fateko asmue dauket. Normalien, Kurtzebarriko egunien kanpuen egoten naz. Nere akorduen pare bat aldiz bakarrik egon naz.

Bai, ahal izenez gero fango naz. Gaiñera, aspaldi egon barik nau. Ez naz garbi akordetan, baiñe 50. urteurrenien Kurtzebarriko egon nintzen. 100.era, barrez, ez dakit helduko nazen...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GUNE BELTZA Autoa gidatzen duzuen gehienok ezagutuko duzue argazkia azaltzen den gunea. Beroako autobus geltoki parean dago. Zirkulazio arauen arabera ez luke zaila izan beharko autoa gelditu eta ezker-eskumara begiratu eta gero pareko bidera irtetea. Baina ez da horrela izaten. Inguruan aparkatutako autoek ikuspegi guztia kentzen diote gidariari. Gune beltza da zirkulazioarendako. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIA /04

Diru kontuak osoko bilkuran

Alkateak eta Xabier Sarasua zinegotziak udaletxean lan egiteko prozesua abian dago.

ELKARRIZKETA /05

Aretxabaletako parroko berria

Jesus Ortiz de Urbina da Eskoriatzako eta Aretxabaletako parrokoa domekaz gero.

KIROLAK /06

UDAK hasi du denboraldia

UDako preferente mailako taldeak galdu egin zuen aurtengo ligako lehenengo norgehiagoka.

ASTEKODATUA

38.879

EURO GASTATU DITUZTE FATXADAK GARBITZEN

Udalak, aurtan, dagoeneko 38.879,76 euro gastatu ditu herrian egiten dituzten pintadak garbitzen. Lan horretarako urte hasieran onartutako aurrekontua 12.000 eurokoa bakarrik zen.

BESTEKEESANA

“ Gauzak gogoz hastea gustatzen zaigu, baina hobe da lasaiago abiatzea. Ezin zara gogorregi hasi, ondorengo kolpea handiagoa izan daitekeelako. Erritmoa kontrolatu behar duzu, batez ere distantzia zehatz batetik aurrera.

Maratoian azkeneko kilometroak dira erabakigarrienak; 35. kilometrotik 40. era bitartekoak. Ordurako ibilbide dezente duzu egina eta indarrak ez dira hasieran bezain sendoak. Indarra ahulduz doanean, buruak asko funtzionatzen du, eta burutazioak izugarriko eragina du gelditzen denari aurre egiteko.

Entzun izan dut maitasuna egitea eta 1.500 metroko lasterketa burutzea antzekoak direla. Nire ustez, ez da horrenbestetako, baina akaso batzuentzat hala izango da.

JOSEBA LARRINAGA
‘Gara’/03-09-14

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Uda (b)ero

Oporrak amaitu die eta gehixanak lanera bueltan gaz barriro, baine ondio udiai egun batzuk geraketan jako, eta hortaz, ezin esan udia pasau danik.

Bi datu azpimarratuko nituzke bestien artien: txapotia eta berue. Prestige itsasontzietzek aspaldi jo euen hondue, baine ondio bizi-bizirik daz haren aztarnak. Batek baino gehixauk ekarri ditugu hankapeiek baltzitate, eta toailan gaila eder bat'edo beste!! Honen kaltiek zati baten ikusiko ditugu, nahiz eta tristie izen, eta danetan okerrena: eragin dauen kalte ekologiko haundixe.

NUNCA MAIS, pasau eta gero! Berue izen da beste fenomeno atmosferiko aipagarrixe. Pertsona nagusixek esan daue ez dauela holakorik ezagutu, baina abuztuen hamen egondakuek euki daue aukerie euren azaletik ikuste-

ko. Aurtengo honek askoi gogora ekarri dusku oin dozena bat urte inguruko Euskadi Tropikala.

Dana dala, ezin esan seguruenik bero danak eindre dazenik, urrian be askotan badakixelako holako bero olde galantak botaten.

“Aurtengo uda bero honek askoi gogora ekarri dusku oin dozena bat urte inguruko Euskadi Tropikala”

Bestelakuen, dana antzerakue izen da; jaixek nun nahi, protestak, manifestaziñuek, umore ona...

Umorie da falta eingo duskune irailleko aldatz latzai aurrie hartzeko. Hala eta be, urte erdixe eindu, eta hori gure alde daukou!

Jai egarriz geratu danak barriz, badauko nun ase, inguruen asko daz ospaketako eta. Tartien, herrixen hain ondo sustraitute dazen San Migelak. Hortaz, bada sasoi armaixuei astinaldi batzuk emun eta urtebetien hautsek hartzen egon dan baserritar erropiei hautsek kentzen hasteko. Beste barik, ondo ondo pasau!!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauer laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Opor ostie trankil

Bukatu jaku oporrak, gehixenoi behintzet, eta kurso barrixekin asmo barrixek. Udan hartuteko kiluek kendu, etxie txukun euki, lanien biher dan baiño ordu gehixau ez sartu... uff... asmo larreitxo. Trankil hartzen noie hasi douen kursuoi bestela Gabonetarako erreta nau-eta.

Domekan, behintzet, Kurtzebarrire joango naz. 75 urte ez die egunero beteten eta biher dan moduen ospakietie toketan jaku. Kurtzebarri dala-eta joan zan aste bukaeran be ibilli zan jentie bertan, parapentien egin euien salto hain zuzen be. Baiñe behe laiñue euen eta ezin egin gure euien guztixek salto.

Jaixetara joan gure dauenak, ondiokan badauko nora joan: Arientzara. Hantxe topauko dittu Agorreko Andramaixak ospaketan dabitzenak eta benetan egitarau politte gertatu daue aurten be. Herrittik urten gure ez dauenak, ostera, San Migelai itxoin biherko dotza. Hala eta be poliki-poliki gertaketan hasi geike, eta hortarako dantza ikastarue daukogu eguakotxetan, gaur hain zuzen. Ondiokan ez dozule sekule dantzan egin Beinke-Loramendi dantzie? Ez itxoin gehixau eta etorri probetan edarto pasetan dogu-eta. Ah eta mutillendako dei berezixe, zuen zain nau...

OSOKO BILKURA/ 25.336 euroko partida zabaltzea onartu zuten alkatearen eta Xabier Sarasuaren soldatak ordaintzeko

Alkateak eta Xabier Sarasuak udaletxean lan egin dezaten prozesua jarri dute abian

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egin zuen udalbatzak oporren osteko lehen osoko bilkura. Diru kontuak izan ziren nagusi. Batetik, partida berriak zabaldu zituzten, alkateak eta Xabier Sarasuak udaletxean lan egin dezaten; eta bestetik, lehenengo partida batzuei dirua gehitu zieten.

Diru kontuak izan ditu hizpide udalbatzak oporren ostean. Udalbatza osoa batu zen astelehenean, PSE-EEko Mari Carmen Atxutegi izan ezik.

DIRU KONTUAK AZTERGAI

Arrixu Oliden alkateak egun osoz eta Aralar alderdiko Xabier Sarasuak egun erdiz egingo dute lan udaletxean. Hori da, behintzat, euren nahia, eta horretarako diru partida berriak onartu zituzten asteleheneko osoko bilkuran: 25.336 euro bien lanorduk ordaintzeko. Diru hori aurretik dauden hiru partidetatik aterako dute: zinegotzien kalteak ordaintzeko dagoenetik, talde politikoei ematen zaien dirulaguntzatik eta diru-



Fatxadak garbitzeko diru partida dagoeneko bi bider gehitu dute aurten. Astelehenean 20 mila euro ematea onartu zuten.

zaintzako gerakinetatik, hain zuzen ere.

Aurretik zabaldua dauden beste lau partidetarako, bestalde, dirua gehitu zuten. Fatxadak gar-

bitzeko 20.000 euro gehiago eman zituzten, semaforoak zaintzeko 900 euro, udaletzeko ekipamendu informatikoak mantentzeko 4.000 euro eta kirol etxeko kon-

ponketa lanak egiteko 6.000. Bozketak egin ostean, denak agertu ziren alde, PPko Silvia Camporro izan ezik. Azken honek ez zuen botorik eman.



Erreka txukuntzen dabilta asteotan

Eusko Jaurlaritzako Lan Hidraulikoen Sailak aginduta, erreka garbitzen dabilta asteotan. Eskaera Udalak egin zion orain dela hilabete batzuk; izan ere, erreka goitik behera aztertu eta gero, zuhaitz eta zuhaixkak hazita zeudela ikusi zuten, eta traba egiten zutela isurbidean.

Eusko Jaurlaritzak Eulen enpresa hartu du garbiketa lanok egiteko; bertako ingeniariak erabakitzen du zein zuhaitz moztu eta zein ez. Horrekin batera erreka garbiketa lanak egiten dabilta.

LABUR

Idoia Elexpuruk margo erakusketa jarri du Eibarren

Idoia Elexpuru margolari aretxabaletarrak margo erakusketa jarri zuen joan zen egubakoitzean Eibarren. 19 margolan ditu ikusgai Arrate Kultur Elkartearen. Azken urteotan egindakoak dira guztiak, eta indar handikoak. Jon Sarasuaren bertso bat ere eraman du oliora. Dagoeneko 20 urte daramatza Idoiak margolaritzan, eta Juanjo Altunaren ikaslea da.

Lehenengo erakusketa du Eibarren, eta domekara arte egongo da ikusgai.

Banatzailleak

Egubakoitz arratsaldeetan Goienkaria banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

Aretxagazeta

ELKARRIZKETA

JESUS ORTIZ DE URBINA/ESKORIATZAKO ETA ARETXABALETAKO PARROKOA

“Presentzia bakarrik ez, laikoek erantzukizunak hartu behar dituzte”

MIRARI ALTUBE

Itekoran, Errioxako Araban, jaio zen, eta Zumarragatik dator gurera. Badaki ez dela gaztea, 65 urte ditu, baina lantalde indartsua dauka alboan eta lasai dago. Joan zen domekan izendatu zuten Eskoriatzako eta Aretxabaletako parroko.



M.A.

Non ibili zara orain arte?

Ni ez naiz elizbarrutiko abadea, hau da, abade sekularra, erregelapeko kalonje laterandarra baizik. Ikasketak Oñatin egin nituen eta 26 urterekin Hego Amerikara joan nintzen, Argentinan eta Uruguain egon nintzen 19 urtean. Ondoren Madrilan, Bilbon, Oñatin eta Zumarragan egon naiz. Hain zuzen, handik nator orain.

gotzainak garbi esan zuen domekan ez dela apaiz bat hemen egongo eta beste bat Eskoriatzan, baizik eta taldea bera dela eskualdeko arduradun.

Lan handia datorkizu, ez?
Bai, eta gainera adinekoak gara gehienok. Hori bai, lan egiteko gogoarekin nator...

Abade faltak aldaketa asko dakarzkigu. Herritarrok gertu gaude onartzeko?

Garbi dago kostatu egingo zaigula aldaketak onartzea, baina ez dago besterik. Batetik, abade gutxi dago, eta bestetik, mun-

duan aldaketa asko izan dira. Guretzat erronka handia da gizar-teari gure balioak eskaintzea.

Horrek laikoen presentzia handiagoa eskatuko du?

Bai, ez bakarrik presentzia, erantzukizunak hartu beharko dituzte. Dagoeneko ez da izango abadeak agindu eta herritarrek bete, denon artean egin behar dugu lan. Aretxabaletako Pastoral Kontseiluarekin bilera izan nuen, eta jende langilea eta ona dagoela iruditu zitzaidan.

Hortaz, zeintzuk izango dira zure eginbeharrak?

Lehen aipatutako moduan, taldean egingo dugu lan. Aste honetan, esaterako, bilera egin dugu, Aretxabaletako parrokiaren aurtengo helburuak zeintzuk izan behar diren zehazteko: ospakizunak zelan egin, ebanjelizatze lana zelan bideratu...

Zu zeu Aretxabaletan bizi izango zara?

Herritarrek ardura handia daukate, baina horrek ez dauka inolako garrantzirik. Bai, nik Aretxabaletan egingo dut lo, baina bizi Eskoriatza eta Aretxabaleta artean bizi izango naiz.

Herritarrei zerbait eskatu gura diezu?

Hasieran, behintzat, pazientzia. Abade gaztea joan eta edadekoa etorri zaie; hortaz, pazientzia. Borondate onez nator, eta egingo dugu aurrera.

TXUTXUMUTXUA



Kurtzebarriko gurutzeak 75 urte beteko ditu

Kurtzebarriko gurutzearen 75. urteurrena aitzakia hartuta Mendi Astea antolatu du Murruxiko MEK. Diapositiba emanaldiak, hitzaldiak... Hainbat ekitaldi egin dira astean, eta gurutzearen inguruko argazki erakusketa hilaren 22 arte luzatuko dute. Domekan egingo dira, bestalde, 75. urteurreneko ospakizunak: 11:00etan meza izango da mendi tontorrean eta ostean txoria, gazta eta xanpaina egongo dira. 14:00etan herri bazkaria egingo dute Elixabarrin, taberna zerbitzuarekin. /M.A.

LABUR

Gaur jasoko dute Martin Kabarrixa tantaian, eta Areantzako Andramaixak hasiko dira

Gaur hasi eta domekara bitartean Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoan. Ekitaldi ugari antolatu dituzte, gainera: gaur, esaterako, Martin Kabarrixa jasoko dute tantaian, eta 21:15ean auzo afaria egingo dute. Bihar, zapatua, meza nagusia izango dute 12:00etan. Eguerdian hasi eta iluntzera bitartean, bestalde, jolasak izango dituzte. Domekan Kurtzebarriara joango dira.

ANA'S
jantzi denda

Iparagirre 4
Aretxabaleta

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✿ Liburuak ✿

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

J.J. IRURE
ITURCENTZAN

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


IRIARTE

Umeen
denda
Helduen
lentzeria




Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

BERALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, beheka • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 beheka
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

FUTBOLA

Lehenengo partidua galdu arren, UDAK gogotsu hasi du liga

Igor Gordobil preferente mailako entrenatzailearen esanetan, lan handia dago egiteko

AMAGOIA LASAGABASTER

UDAKo preferente mailako taldeak joan den domekan, hilak 7, hasi zuen 2003-2004 denboraldia, eta ez zen estreinaldi ona izan. Izan ere, UDAK galdu egin zuen, Real Unionen aurka, Irunen. Dena dela, Igor Gordobilen mutilak sasoi onean daudela erakutsi zuten.

Preferente mailako UDA taldeak ezin izan zuen Liga Txapelketa garaipenarekin hasi. Iruneko Real Union taldearen aurka partidu eskasa jokatu eta gero, 2-0 galdu zuen UDAK.

Azken bi urteotan Real Union UDAkoen berrero bilakatu da. Iaz ere irundarren aurka jokatu zuten ligako lehenengo partidua, eta UDAK galdu egin zuen. Hala ere, denboraldiaren hasiera besterik ez da eta Igor Gordobil entrenatzailea lasai dago: "Partidu eskasa jokatu genuen, Real Unionekoak ez zuten gauza handirik egin eta gu ere motel ibili ginen, baina oraindik denboraldi osoa daukagu aurrez aurre".

TALDEKIDE BERRIAK

Bittor Muxikak abuztuko operaldiaren aurretik taldea utzi eta gero, Igor Gordobil gazteak hartu zuen preferente mailako mutilen zuzendaritza. Igorrek, baina, ez dio bakarrik aurre egingo lanari. Alboan Iban Aranguren presatzaile fisikoa eta Ignacio Fernandez entrenatzaile laguntzailea



Sei jokalar berri osatuko dute aurtengo Liga Txapelketa UDAKo preferente taldea.

izango ditu. Igorren esanetan, bi horien laguntza ezinbestekoa izango du.

Bestalde, jokalarien artean ere bada nobedaderik. UDAk aurtengo sei jokalar berri izango ditu zela gainean. Horietatik hiru, Iban da Silva, Iñaki Uribe eta Gorka Iturbe, desagertu berri den bigarren erreginako jokalar ohiak dira. Erik Badillo eta Oruetak, berriz, gazte mailako taldeak egin dute salto preferente mailara. Azkenik, UDAko zuzendaritza batzordeak Eibar B taldeak etorritako Gaiz-

ka Heriz atezaina fitxatu du aurtengo denboraldian taldea osatzeko. Taldea utzi dutenen artean, berriz, bi jokalar daude: Jon Sanchez Bergarara joan da eta Asier Murgoitio, Aloña Mendira.

Igor Gordobilen esanetan, talde sendoa dauka, baina hainbat aldaketa egin gura ditu: "Iazko talde berdintsua daukagu aurtengo ere, baina, nire ustez, lan handia dago oraindik egiteko".

Oraingo domekan Beti Gazte taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Partidua 16:30ean jokatu dute, Ibarren.

FUTBOLA

UDAK ez du lehenengo erregionaleko talderik izango Liga Txapelketan

Iazko denboraldi amaieran UDAKo bigarren erregionaleko taldea mailaz igo zen. Hala ere, garaipenaren pozak ez zuen ezertarako balio izan. Zuzendaritza batzordea lehenengo erregionalean jokatze taldea osatzen ahalegindu zen, baina, ez zuen lortu. Izan ere, hamaika jokalar berri ez zegoen liga jokatze taldea. Hala, azkenean, taldea bertan behera uztea erabaki zuten.

XAKEA

Arlutzeko jokalariek Zumarragan eta Bergaran izango dituzte hurrengo norgehiagokak

Arlutz Xake Taldekoek joan den zapatuan, hilak 6, Lesakako Nazioarteko Xake Txapelketa irekian parte hartu eta gero, oraingo asteburuan Zumarragan eta Bergaran izango dituzte norgehiagokak. Zumarragako zapatuan jokatuko da eta xake bizkorreko txapelketa izango da. Bergarako, bestalde, domekan jokatuko dute eta maila handiko xakelariak izango dituzte aurkari.

KARATEA

Karate taldekoek datorren martitzenean, hilak 16, hasiko dituzte entrenamendu saioak

Herriko Karate Eskolako 31 lagunek datorren martitzenean, hilak 16, izango dute denboraldiko lehenengo entrenamendua. Odilo Vazquez entrenatzailearen zuzendaritzapean, aurtengo talde bi osatu dira: bata, 6 eta 10 urte bitarteko gaztetxoekin eta bestea, 11 urtetik gorakoekin. Bigarren talde horretan oraindik aukera dago izena emateko. Gura duenak dei dezala kirol etxera.

KIROL ETXEA

Zabalik dago 2003-2004 ikasturteko kirol eskaintza izena emateko epea

Kirol etxeko arduradunek dagoeneko egin dute 2003-2004 ikasturterako kirol eskaintza. Aerobika, igeriketa, adinekonendako gimnasia, *aquagym*, karatea, askotariko kirolak, Atzegikoendako gimnasia eta gimnasia terapeutikoa egongo dira aurtengo ikasturtean aukeran. Ikastaro gehienak astelehenean, hilaren 15ean, hasiko dira. Izena eman gura dutenek kirol etxera jo behar dute. Abonatuak deskontuak izango dituzte ikastaro guztietan.

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 01 28

Angelines
AUTOZERBITZUA

**Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea**

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETAK

Mortin
erloju-denda

**Bere bezeroen
zerbitzura**

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETAK

Jon Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAK

IBARRA
estankoa



**PRENTSA ETA
IKASMATERIALA**

Egunero zabalik

Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETAK

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAK

Zuzendaria:
**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:
**Soraya
Arquero**

LEIBAR
arrandegia

Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta



**ANDRA
MARI**
Aholkularitza

**- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala**

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETAK
Tel. 943 79 29 26

ERRETRATUZHARRA

Kurtzebarriko gurutzea jarri zutenekoa

Aretxabaletarrok mendirik maite badugu, Kurtzebarri da mendi hori. Herriari begira daukagulako, behar bada, edo Kurtzebarriko gurutzeari begira hazi garelako, bestela. Bada, gurutzeak 75 urte beteko ditu. Samur begiratzen diogu, baina 1928an Kurtzebarriko tontorreraino eroan zutenek ez zuten balentria makala egin.

Zazpi gizonen artean sortutako burutazioa izan zen: Luis Arrue, Alejandro Bengoa, Angel Aznar, Pedro Jauregi, Jose Galdos, Hermenegildo Galdos eta Roman Galdos. Pentsatu eta egin, burugorrrak ziren gero ordukoak! Horiexek dira, hain zuzen, azaleko argazkian gurutzerara igota agertzen direnak. Gurutzea egiteko materiala Lezama eta Konpainia enpresak eman zuten, eta Beroako langileak euren lanorduetatik kanpo ibili ziren egiten. Bi zati eginda eroan zuten mendi tontorrera, lau idi-pareren gainean. Non jarriko gurutzea eta, tontor gailurrenean jarri beharrean Aretxabaletatik ondo ikusteko moduan jarri gura izan zuten; 1.133 metrora dago.

Irailaren 8an eroan zituzten gurutzearen zatiak gora, eta 11n jarri zuten tente. Hori ospatzeko, pago adarra jarri zuten gurutzearen puntan. Bedeinkapena eta jaia, oster, irailaren 18an egin zituzten. Eguraldia lagun izan zuten, eta aretxabaletar eta inguruko auzotar ugari batu ziren Kurtzebarri; dotore joan ziren gero,



alkandora zuriak eta fraka berriak jantzita, ospakizunak eskatzen zuten moduan. Meza Emilio Larrañaga Aretxabaletako parrokoak esan zuen, eta ostean, Emili ostatuan prestatutako bazkari goxoa izan zuten abadeak eta burutazioa izan zuten zazpi gizonak. Gainerakoek ogitartekoak izan zituzten, gura beste, eta norberak eroandako jakiak. Txistulariek girotu


zuten eguna eta Juan Jose Oruetak eta Esteban Zuazuak aureskua dantzatu zuten gurutzearen aurrean erretratuan ageri diren moduan; Luis Arruek berak ere egin zuen dantzan.

Era berean, jai handia egin zuten gurutzeak zilarrezko ezteiak bete zituenean ere. Aretxabaleta Kirol Elkarteak, UDAK, prestatu zuen jaia, eta 2.500 mendizale inguru batu ziren.

Kruz Abarrategi abadeak esan zuen meza, Aretxabaletako abesbatza lagun, eta Gasteizko dantzariak jardun zuten.

Orain arteko ospakizun guztietan giro ezin hobea izan da Kurtzebarri. Ea domekan ere aretxabaletarrok gurutzearen inguruan batzen garen.

Informazioa: Kurtzebarri (J. Letona, J. Leibar)



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Gure ordutegia: 7:30etatik 12:30etara
eta 14:00etatik 17:15etara



EGUZKIGRAF
inprimategia

Zubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com
20550 ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 12a / 136. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Herriko ikastetxe batzuek abian jarri dute 2003-2004 ikasturtea

AMAGOIA LASAGABASTER

Bukatu zaizkie oporrak ikasle eta irakasleei. Batzuek dagoneko hasi dute ikasturtea: Jose Arana eta Luis Ezeizakoak, hain zuzen ere. Almen gunean, berriz, LHko eta Batxilergoko ikasleak astelehenean hasiko dira. Azkenekoak HUHEZI fakultatekoak izango dira.

Iritsi da garaia, berriz ere, opporen aurretiko bizimoduari heltzeko. Horixe uste dute, behintzat, umeak dituzten guraso gehienek. Askori tristura eragiten die umea eskolan utzi beharrak, baina gehienek gustura hartzen dute aldaketa. Aurten ere herriko gaztetxoek izan dira aurrenak ikasturteari heltzen, Arizmendiko Jose Aranan eta Luis Ezeizan. Horren gaztetxo ez diren gehienak Almenara joan dira ikastera. Eta Unibertsitateko ikasleak HUHEZI fakultatean batuko dira.

LUIS EZEIZA

Hilaren 11n zabaldu zituen Luis Ezeiza herri eskolak atea. Aurten 26 ikasle berri dituzte. Horietatik 23 dira urte birekin lehengo aldiz eskolara joan direnak. Iaz 15 ikasle berri izan zituzten.



Herriko txikiak izan dira aurten ere eskolara joaten lehenak.

ARIZMENDI IKASTOLA

Arizmendi ikastolak gune bi ditu Eskoriatzan: Jose Arana eta Almen gunea. Jose Aranako ikasleak izan ziren lehenak hasien, irailaren 2an zabaldu zituen eta ikastolak atea. Aurten 135

ume daude Jose Aranan. Almen Gunean, berriz, irailaren 12an hasi ziren DBHko ikasleak eta 15an hasiko dira Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak. Almen guneak aurten 939 ikasle izango ditu.

HUHEZIKO FAKULTATEA

Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan duen fakultateak datorren eguaztenean, hilak 17, irekiko du ikasturtea. Egun horretan, lehen mailakoak izan ezik gainerako guztiak hasiko dira.



Agur beroa egin zioten herritarrek Xabier Gomezi

Sei urtez izan da Xabier Gomez azkoitiarra Eskoriatzako parroko. Domekan, berriz, Salamancara joan aurretik, herritarrek agur beroa egin zioten. Juan Mari Uriarte Donostiako Elizbarrutiko gotzaina eta lagun ugari izan zituen aldarrean lagun Xabierrek. Mezaren ondoren aurrekua dantzatu zioten hiru lagunek. Xabierren omenezko bazkarian, frontoian, 214 lagun egon ziren eta giro ezin hobea izan zen. Ordenagailu bat, udaletxeko urrezko irudia eta lore sorta egin zioten opari Xabierri.

LABUR

Kanpoko igerilekuan jende asko ibili da udan

Igandean, hilaren 14an, itxiko dute kanpoko igerilekua. Eguraldia lagun, inoiz baino jende gehiago ibili da kanpoko igerilekuan aurten. "Egun askotan ez dugu lekurik izan. Jendez gainezka egon da kanpoko igerilekua", esan digute kiroldegiko arduradunek. Astelehenean aurrera ohiko ordutegia izango du igerilekua: astelehenean egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara; zapatuan, 09:30etik 12:30era eta 14:30etik 20:30era; eta domekan, 09:30etik 12:30era.

Gaurtik merkatua Santa Ana auzoan egingo dute

Egubakoitzero Gorosarri plazan egiten duten merkatua Santa Ana auzoan egingo dute gaur hasi eta hurrengo hiru hilabeteotan; hau da, lehen egiten zuten lekuan.

Gorosarri plazan oztoko arkitektonikoak kentzeko lanak hasiko dituzte datorren astean; hori dela eta, ezingo dute salmenta posturik jarri bertan. Lanok hiru bat hila-bete iraungo dute, eta bukatu ostean, Gorosarri plazara itzuliko dira egubakoitzetan jarri dituzten postuak.

Erresidentzia aurreko etxeak bota egingo dituzte

Datorren astean hasiko dira zaharren egoitzaren aurrean dauden etxeak botatzen. Herriko beste leku askotan moduan, Gaztanadui deitutako zonan etxebizitza berriak egingo dituzte laster. Guztira 40 etxebizitza egingo dituzte Gaztanaduin.

Udalak, bestetik, ahalegin handiak egin ditu bertan dagoen Zubiareko labea gordetzeko, eta, ahaleginak ahalegin, labe zaharra orain arte egon den lekuan geldituko dela esan digute Udaleko iturriek.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana.....	943 71 44 86
Arizmendi-Almen.....	943 77 20 25
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

PINTURA IKASTAROA

Pintura ikastaroa hasiko da urriaren 4an, eta ekainera arte iraungo du. Pintura eskolak larunbatetan 14:30etik 17:30era emango dira. Ikastaroan parte hartu gura duenak irailaren 25a baino lehenago eman beharko du izena kultura etxean, 09:00etatik 14:00etara, edo 943 71 46 88 zenbakira deituta. Interesatuak 75 euro ordaindu beharko dituzte.

JUAN KARLOS BENGEOA/ALKATEA

“Udal langile, eraginkor eta azkarra eman gura diogu Eskoriatzako herriari”

AINTZANE GARDOKI


Juan Karlos Bengoak ekainaren 14an hartu zuen kargua. Beraz, ia 100 egun daramatza alkate lanetan. Agintariei ematen zaizkien konfiantzazko 100 egun horiek aitzakia hartuta, Juan Karlosengana jo dugu, eta hara zer kontatu digun.

Laster 100 egun beteko dituzu alkate lanetan. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Egia da 100 egun beteko ditudala laster, baina uztaila eta abuztua tartean egonda, ez pentsa balorazio zehatzik egiteko moduan nagoenik oraindik. Kargua hartu bezain laster, udal antolakuntzan sartu ginen buru-belarri. Hori antolatutako orduko, gauza bat dela eta beste bat dela, abuztua sartu zitzaigun tartean.

Baina dagoeneko makina bat erabaki hartu behar izan dituzu, ezta?

Bai. Gehienbat, hirigintza eta etxebizitza berrien eraikuntzen gabeziak izan dira. Azkeneko urteotan mugimendu handia dago herrian. Eta mugimendu horrek jarraitu egingo du datozen hila-beteotan; izan ere, Gaztanaduin 40 etxebizitza egiteko lanak datorren astean hasiko dira; Elorretan hasita daude indusketa lanak egiten; Kuartuena deitutako zonan aurki hasiko dira lanak (han 55 etxebizitza egingo dituzte); Santa Marinar, berriz, atzerapenarekin izango den arren, beste 150 etxebizitza



A.G.

berri egingo dituzte.

Eta zeintzuk dira datozen lau urteotarako dituzuen lehentasunak?

Lehentasun ugari ditugu. Esan bezala, herriak itxuraldaketa handia izan du. Baina ez da nahikoa lan handiak egitea bakarrik; lan eta zerbitzuen barruan, mantentze-lan plana bultzatu behar dugu; herria txukun eduki behar dugu, eta dauden beharrei erantzuna eman behar diegu: barandak mar-

gotu, kaleetako altzariak zaindu, herria garbi eduki... Hasita gauda auzo bakoitzean dauden gabeziak aztertzen. Bestetik, 12 eta 17 urte arteko gazteendako zerbait egin beharra dago. Lokalen bat egokitu behar dugu eurentako. Gizarte Zerbitzuetatik, berriz, eguneko zentroa zabalduko da laster, nagusiei zuzendutako etxebizitzak egokitu gura ditugu... Eta ezin ditugu Elizateak ahaztu: auzotarrendako auzo-lokalak bultzatu

gura ditugu. Izan ere, Marinen, Zarimutzen eta Mazmelan auzotarrek ez dute non elkartu. Lokal horiek auzoari berari eta auzoko identitateari bizirik eusten lagunduko diotelakoan gaude. Lehentasunak ez dira gutxi, eta egunero lanarekin atera beharko ditugu aurrera.

Eta Kontzejupe plataformak zein leku du Eskoriatzako Udalean?

Batzarrak egiten jarraitzen dugu. Egia esan, legeari helduz gero, denok dakigu ez dagoela ezer egiterik, baina ezin dugu ahaztu herritar askok plataformaren aukera egin zutela. Kontzejupe plataformak presentzia eduki dezan udal ordenantza aldatu egin dugu. Aldaketa horrek, gainera, herritar guztien partaidetza bultzatu gura du.

Uste zenuen baino lan errazagoa ala zailagoa da alkate izatea?

Laugarren agintaldia dut hau. Orain arte udalbatzan bat gehiago nintzen. Orain, berriz, alkatea naiz eta daukadan ardura askoz handiagoa da. Egun osoz jarduten dut udaletxean lanean. Oso gustura nago. Bizirik dagoen herria dut aurrean. Horrek lan eta ardura asko ematen badizkit ere, gurago dut horrelako herri bizia izan, gidatzeko herri geldo bat baino. Orain, herriaren alde ondo lan egiten jakin behar dugu. Udal langile, eraginkor, bizi eta azkarra eman gura diogu herriari. Horretan jardungo dugu.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61




- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak


Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20



Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastañadui auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura


Giro polita eta jende ugari izan da aurtengo Gatzagako Andramaixa jaietan

AINTZANE GARDOKI

Udalak oraindik ez du egin pasatu berri diren jaien gainean balorazio zehatzik, baina kultura zinegotzia pozik azaldu da: "Oraingo eta lehenagoko jaiak ez dira gauza bera. Lehen, jendez gainezka egoten ziren herrietako festak; orain, berriz, oso jende gutxi ibiltzen da. Egunez jende ugari ibili da gurean. Domekan eta astelehenean, batez ere, lagun asko etorri zen Leintz Gatzagara. Beste ekitaldi batzuetan, aldiz, ez dugu espero genuena lortu. Ea datorren urtean hobetzeko moduan gauden. ARGAZKIAK: AINTZANE GARDOKI



Arrasateko kiliekiek bati baino gehiagori berotu zieten burua zapatu arrasaldean.



Herri bazkarian inoiz baino herritar gutxiago elkartu ziren.

18 gazta eta dozenaka baserriko ogi jan zituzten Amabirjinari agur egitera joandakoek


Euri zaparrada azpian kantatu behar izan zuten Egaña eta Lizaso bertsolariek



Zubizarreta eta Gallastegi eskoriatzarrek irabazi zuten Mus Txapelketa.



Umeek gogotik gozatu zuten Gorritiren animaliekin zapatu goizean.



Avila Rojaseko (Granada) txirindulariak izan ziren nagusi Gatzagako 25. Txirindulari Lasterketan.



Otxandioko lagunek aurten ere ez diote hutsik egin Amabirjinari.



Egañak eta Lizasok, euripean izan bazen ere, saio polita egin zuten.



Argazki eta sendabelarren gaineko erakusketan jende ugari ibili zen.

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

- Euskalduntze maila guztiak.
- Alfabetatze.
- EGA.
- Mintzamina lantzeko talde bereziak.
- Sakontze ikastaroak.

Erritmoak:

- Ordu eta erdi, 2, 3, eta 5 ordu.

Bulego ordutegia:

- Goizez: 09:00-13:00
- Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea:

- Irailaren 1etik 26ra.


Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.

16 urtetik gorakoentzat.

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesionali, familiarrekoei, kulturaleri egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAKEZU!

LEINTZ Udal Euskaltegia
ARETHABALETA • Nafarroa 2-4 • 20550 ARETHABALETA
• Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
ESHORIATZA • Intxaurtxueta 10 • 20540 ESHORIATZA • Tel.: 943 79 21 68
• leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!



LEINTZ Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azata auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

GOYARAN ERRETEGIA



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57



EGYNEKO MENYAK
OTARTEKOK ETX
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**URBALTZ
TABERNA**



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldeia ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

JOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08



**IBARRA
JATETXEA**

Menua
eta
karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03



Mitartegorai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

EZKUTU
TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzena

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORITZA

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Aretz
taberna

ORDUTEGIA:
Asteleheneretik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

